

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Gidalerroen (LAG) berrikuspena hasieran onartu ostean idatzitako testua aztertu ondoren, atxikita doa entzunaldiko eta jendaurreko izapidean EUDELe egindako alegazioak jasotzen dituen txostena. Bertan ez da ageri, halere, bizitegi-kuantifikazioaren arloko alegazioa. Izan ere, eskaturiko informazio osagarria atzo jaso zenez, datuak aztertutakoan jorratuko da alegazio hori.

Tras analizar el texto facilitado tras la aprobación inicial de la revisión de las Directrices de Ordenación del Territorio del País Vasco (DOT), adjunto se adelanta el informe que contiene las alegaciones de EUDEL en el trámite de audiencia e información donde sin embargo, no se contiene la alegación en materia de cuantificación residencial. Dado que se recibió ayer la información complementaria solicitada, esta alegación será confeccionada tras el análisis de los datos aportados.

Begirunez,

Atentamente,

Bilbon, 2018ko apirilaren 27an



Imanol Landa Jauregi
Elkarteburua

IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ JN.

EUSKO JAURLARITZAKO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZAKO SAILBURUA

CONSEJERO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y
VIVIENDA DEL GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDURAKO GIDALERROEN HASIERAKO ONESPEN- DOKUMENTUARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuak 2018ko otsailaren 20an emandako Agindu bidez, honako erabaki hauek hartu ziren: alde batetik, Lurralde Antolamendurako Gidalerroen Berrikuspenari buruzko dokumentua hasieran onartzea; bestetik, bi hilabeteko epean jendaurrean jartzea, eta, hirugarrenik, interesa izan dezaketen Lurralde Administrazio Publiko guztiei entzunaldia egiteko epea irekitzea, nahi beste ohar eta iradokizun egin ditzaten.

Testuinguru horretan, Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) ondorengo alegazio hauek aurkeztu ditu, Lurralde Antolamendurako Gidalerroen (LAG) dokumentuarekin lotuta eta ondoren adierazitako arrazoietan oinarrituta. Zehazki:

1.- LURRALDE ANTOLAMENDURAKO GIDALERROEN AURREIKUSPENEN IZAERA ARAUTZEN DUTEN GIDALERROAK ETA ARAUBIDE IRAGANKORRA

1.1.- Lurralde Antolamendurako Gidalerroen hasierako onespén-dokumentuaren gidalerroak

2. artikuluan eta Hirugarren Xedapen Iragankorrean jasotakoak dira une honetan gure arretaren xede.

1.2.- Zenbait ohar.

A.- 2. artikuluko aurreikuspenak.

Aurreikuspen horiek indarrean dagoen Lurralde Antolamenduari buruzko Legeko 84. artikuluan jasotakoak berdinak dira funtsean, baina une honetan urriak eta ilun samarrak dira. Beraz:

- * Lurraldearen Arloko Gidalerroak, lotesleak izateaz gain, inposizio-, bazterketa- edo txandakatze-irizpideen berezko izaera dutela (II. kapitulukoak) edo gomendioak direla (III. kapitulukoak) esatea nekez izan daiteke bateragarria hirigintza-plangintzak zenbaitetan horiek doitu edo aldatu ditzakeela dioten aurreikuspenekin (II. kapitulukoak barne).
- * Halaber, ez dira nahikoa une honetan lurraldea antolatzeko indarrean dauden tresna ugaritatik sortutako kasuistikari edo arazoei erantzuteko, aurreikuspen horiek kasuistika horren arabera egokitzea justifikatzen baita, 2.3 atalean azaldutako terminoetan.

B.- *Hirugarren Xedapen Iragankorra.*

Lurralde Antolamendurako Gidalerro berriak indarrean sartzen diren unean hasierako izaeraz onartuta dauden hirigintza-plangintzek ez dituztela gidalerro horiek nahitaez aplikatu beharko jasotzen du xedapenak, baina erreferentzia hori oso generikoa eta osatugabea da, besteak beste, hirigintza-planen kasuistikari eta aniztasunari begira. Horregatik, 2.3 atalean adierazitako moduan doitzea komeniko litzateke.

1.3.- Eskariak.

Adierazitako oharra kontuan hartuta, honako hau eskatzen dugu:

A.- 2. artikuluan jasotako edukia modu egokian zehaztea, Lurralde Antolamendurako Gidalerroak aplikatzerakoan edozein arazo edo gaizki ulertu saihesteko.

B.- Hirigintza-plangintzan duten afektazioaren ikuspegitik, Lurralde Antolamendurako Gidalerroetan bi mota hauek bereiztea:

a) Afektazio zuzena edo berehalakoa duten gidalerroak (Lurralde Antolamendurako Gidalerroak indarrean sartzen direnetik hirigintza-plangintzan eragiten dutenak, eta haren arabera egokitu beharko dutenak).

Honako hauek izan daitezke (adibideak baino ez dira):

- * Ingurune fisikoaren antolamenduaren arloko gidalerroak (3. artikulua).
- * Hiri-berroneratzearen arloko gidalerroak (10. artikulua).
- * Bizitegi-kuantifikazioaren arloko gidalerroak (13. artikulua).

b) Zeharkako afektazioa duten gidalerroak (gidalerroen arabera egokitutako LPP edo, hala dagokionean, LPS onartu ondoren eragiten dute hirigintza-plangintzan).

Honako hauek izan daitezke (adibideak baino ez dira):

- * Azpiegitura berdearen eta ekosistemen zerbitzuen arloko gidalerroak (4. artikulua).
- * Eraldaketa-ardatzen arloko gidalerroak (9. artikulua).
- * Hiri-hazkunderen perimetroaren arloko gidalerroak (11. artikulua).
- * Plangintzak bateragarri egitearen arloko gidalerroak (14. artikulua).
- * Indarrean dauden LPP edo LPSetan jasotako aurreikuspenek eragindako beste gidalerro batzuk (zuzenean aplikatzekoak ez direnak).

Horrek justifikatzen du, beraz, berariaz egiten diren adierazpen hauek: alde batetik, zeharkako afektazioko gidalerroak Lurralde Antolamendurako Gidalerroen arabera egokitutako LPPak edo LPSak onartu ondoren aplikatuko dira hirigintza-plangintzan; bestetik, egokitzen hori egin artean, indarrean dauden LPPetan eta LPSetan zehaztutako aurreikuspenak aplikatuko dira.

C.- Hirugarren Xedapen Iragankorra behar den moduan doitzea, honako hau adierazteko berariaz:

- * Aurreikuspenek hirigintza-plangintza orokorrari soilik eragiten diote.
- * Aurreikuspenak hasierako izaeraz onartutako aldaketa puntualetan nahiz edozein motatako berrikuspenetan (partzialak edo osoak) aplikatuko dira.
- * Xedapen iragankorra aplikatzeari begira, udaleko hirigintza-plangintza hasierako izaeraz onartu dela ulertuko da izapide hori (osorik edo zati bat) Lurralde Antolamendurako Gidalerroak indarrean sartu ondoren berriro egin behar denean ere.

2.- LURRALDE PLANGINTZA PARTZIALAREN ETA SEKTORIALAREN KOORDINAZIOAREN ARLOKO GIDALERROAK, ETA HIRIGINTZAKO PLANEN BERRIKUSPENAK TRAMITATZEAN ADMINISTRAZIOA INTEGRATZEAREN ARLOKOAK. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEA

2.1.- Lurralde Antolamendurako Gidalerroen hasierako onespén-dokumentuaren gidalerroak.

Une honetan arreta jarri beharreko gidalerroak, zehazki, honako hauek dira: Memoriako “11.4” eta “11.5” epigrafeetan datozenak, eta Aplikazio Arauetako 37. eta 38. artikulua.

2.2.- Zenbait ohar.

Gidalerro horien irakurketak honako ohar eta gogoeta hauek ekarri ditu, besteak beste:

- * Aplikazio Arauetako 37. artikuluan eta 38.ean biltzen diren koordinazioko eta integrazioko gidalerroak oso lotuta daude, beren izaeragatik eta baldintzatzaileengatik, LAGen Memoriako 11. epigrafean azaltzen diren gobernantza-neurriekin.
- * Zenbait baieztapen ez dira egokiak, edo okerrak dira.

Besteak beste, hauek (Memoriaren “11.5.1” epigrafean datozenak):

Horren ondorioz, promoziorako, idazteko, tramitatzeko eta behin betiko onartzeko epea udalaren legegintzaldi politiko batetik askoz harago luzatzen da, eta, beraz, plan orokorra berrikusteak ez du interes politikorik udal-arduradunentzat (...).

Jabetzen dira udalak aipatutako arazo horretaz. Areago, udalek pairatzen dituzte gehien arazo horiek. Baina ez diote utzi horregatik hirigintza-plangintzaren interes politikoa aitortzeari, eta, ildo horretan, beren konpromisoa erakusteari. Horrexegatik, horrelako baieztapenak okerrak dira, eta ez daukate arrazoirik.

- * Lurralde Antolamendurako Gidalerroak eta EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordea ondo bereizitako bi tresna dira, eta esku hartzeko neurri desberdinak eskatzen dituzte; baina, hori onartuta ere, ezin da ezkutatu, eta ez da ezkutatu behar, bien artean dagoen erlazio estua.

Beraz, EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordearen funtzionamendu zuzena ezinbesteko premisa da (beste batzuk ere beharrezkoak dira, noski) lurraldearen antolamendurako tresnak landu eta tramitatzean eta hirigintza-plangintzak berrikustean administrazioa integratzeko.

Egiaz, eta LAGen hasierako onarpenerako dokumentuan gai horri buruz esaten direnak esaten direla ere (Memoriaren “1.2” epigrafea, 23. or.; “37.1” artikulua, etab.), EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordea urrun dago koordinazio-zereginak eta administrazioa integratzearekin lotutakoak betetzetik, nahiz eta zeregin horiek badagozkion eta onartu beharko lituzkeen.

Horregatik komeni da “3.3” atalean azaltzen diren neurriak zehaztea, nahiz eta gerta daitekeen horretarako egokia den esparru batean zehaztu beharra izatea ere, LAGetatik kanpo.

- * 37. artikuluan planteatzen diren gidalerroak (bereziki, 2. paragrafokoak) orokorregiak dira, eta, horrez gain, zalantza egin daiteke beren legezkotasunaz, edota indarrean den Lurralde Antolamendurako Legearekiko bateragarritasunaz; izan ere, lege horretan, lurraldearen antolamendu sektoriala antolamendu integralaren mende gelditzen da.
- * Memoriaren “11.5” epigrafean nahiz Aplikazio Arauetako 38. artikuluan planteatzen diren gidalerroak asmo onen adierazpenak dira funtsean, baina, horiek sinesgarri eta eraginkor izan daitezen, esku hartzeko neurri zehatzagoak behar dira; gainera, modu osagarrian, horiek zer esparrutan azalduko diren ere identifikatu behar da.

Hala, helburu hau izan behar lukete neurri horiek: besteak beste, Eusko Jaurlaritzako sail guztien arteko benetako koordinazio eraginkorra eta administrazioaren esku-hartzearen koherentzia, sail horien barnean hartuta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.

2.3.- Eskariak.

Azaldutako ohar horietan oinarrituta, honako eskaera hauek egin dira:

- A.- Justifikaziorik ez duten baieztapenak eta baieztapen okerrak zuzentzea, besteak beste, Memoriaren “11.5.1” epigrafe horretan jasotzen direnak.
- B.- Koordinazioa eta administrazioaren integrazioa modu erreal eta eraginkorrean bermatuko duten neurri zehatzak hartzea, ildo horretatik LAGen hasierako onarpenerako dokumentuan jasotako asmo onetatik harago joz.

Xede horren konplexutasuna oinarri hartuta, ezinbestekoak dira alderdi hauek:

- a) Kasu honetan, eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzaren eta haren barneko sailen ikuspegi global eta bateratua, barnean hartuta Lurralde Antolamendurako Gidalerroak horien

guztien tresna direla jasotzen duen oharra, tresna hori ez baitagokio soilik Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari.

- b) Adierazitako testuinguru horretan, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eta bere arloen ikuspegi global eta bateratua.
- c) Koordinaziorako eta integraziorako zehaztutako helburu horiek lortzeko beharrezkoak diren esku-hartze neurriak zehaztea, hala dagokionean, egin beharreko lege-aldaketak ere barnean hartuta, besteak beste, xede hauetarako: ingurumen- eta hirigintza-prozedurak koordinatzea eta aldi berean lantzea; ingurumen-ebaluazio estrategikoaren xede izango diren planak tipifikatzea; lurralde antolamendurako tresnen koordinazioa eta koherentzia (bereziki, lurralde-plan sektorialena); etab.

C.- EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordeak egiaz eta modu eraginkorrean koordinaziorako eta administrazioaren integraziorako dituen betebeharrak bere gain hartzen dituela berma dadin, egokiak diren neurriak definitzeko beharrezkoak diren konpromisoak zehaztea, xede horretarako egokia den esparru batean; horien barnean sartzen dira, besteak beste, honako helburu hauek lortzen direla bermatzeko beharrezkoak direnak:

- * Hirigintza-plangintzari dagokionez EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordeak emandako txosten loteslearen edukiaren izaera oro har koherentea eta integratzailea.
- * EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordean dauden administrazioek jaulkitzen dituzten edo jaulkiko dituzten txosten "sektorialen" multzoan, koherentzia eta integrazio hori azpimarratzea, lege-xedapenetan eta indarreko lurralde-plangintzetan zehazten denarekin bat etorrira.
- * EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordearen aldetik, esku hartzeko irizpide egokiak zehaztea, bi txosten "sektorialen" edo gehiagoren artean (edo LPPetako aurreikuspenen eta LPSetakoen artean) desadostasunak edo kontraesanak sortzen direnean.
- * Hirigintza-plangintzari buruzko EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txosten loteslearen eta Ingurumen Adierazpen Estrategikoaren koherentzia eta integrazioa.

3.- HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN EDUKIAREKIN LOTUTAKO GIDALERROAK, ETA PLANGINTZA HORRETAN JASOTZEN EZ DIREN ARLOETARA HEDATZEA.

3.1.- Lurralde Antolamendurako Gidalerroen hasierako onespén-dokumentuaren gidalerroak.

Une honetan, arreta eskatzen duten gidalerroak hauek dira, besteak beste: 17. artikuluan sartzen direnak (2. paragrafoa, 3.a...), 23. artikulukoak (4. paragrafoa...), 24. artikulukoak, 25.ekoak, 29.ekoak, etab.

3.2.- Zenbait ohar.

Hirigintza-plangintzari ez dagozkion zereginak eta ardurak esleitzea dakarte aipatutako gidalerro horiek; gainera, horietako askok esku hartzeko eta erabakiak hartzeko beren esparru espezifikoak dituzte. Hala, ez dute justifikaziorik honako gidalerro hauek, besteak beste:

- A.- Hondakinen kudeaketaren arloan (17. art.): hirigintza-plangintzan, birziklatzeko, hondakinak gaika biltzeko eta abarretarako xedeak zehazteko aurreikuspenak.
- B.- Baliabide turistikoen arloan: 23. artikulua 4. paragrafoan azaltzen diren gidalerroak (udalerriko lurralde-eredu turistikoa zehaztea hirigintza-plangintzan, etab.).
- C.- Mugikortasun multimodalaren arloko gidalerroei dagokienez (24. art.): bizilekuen edo jarduera ekonomikoen garapen berriekin lotuta mugikortasunari buruzko azterketak egitean datzan aurreikuspena.
- D.- Oinezkoen eta bizikleten mugikortasunaren arloan (25. art.), plangintzan ondoren adierazten diren xedeetarako proposamenak zehazteko gidalerroak: bizikletetarako aparkalekuak eta bizikleta elektrikoetarako kargatzeko puntuak antolatzea eta diseinatzea; bizikleta-bideak seguruago egitea (zirkulazioa arintzea; sekzioa edo zoladura fisikoki egokitzea; etab.); oinezkoen eta bizikleten bideak diseinatzean paisaia-integraziorako irizpideak kontuan hartzea, hiri-altzari egokiekin; etab.
- E.- Irisgarritasun unibertsalaren arloan (29. art.): etxebizitza babestuak desgaitasunen bat duten pertsonei egokitzeko aukera indartzea, mugikortasun murriztuaz harago; etab.

Adierazitakoaren arabera, gidalerro horiek guztiek (eta beste batzuek) izendatzaile komun bat dute, eta emaitza bat: erantzukizunak eta hirigintza-plangintzaren esku-hartze eremua haren esparrutik kanpo dauden gaietara hedatzea, motibaziorik eta justifikaziorik gabe.

Horrez gain, hirigintza-plangintzak lantzeko eta izapidetzeko prozesuak pixkana eta inolako arrazoirik gabe zailtzen, konplexuago egiten edota burokratizatzen dituzten neurriei jarraipena ematea adierazten dute; eta, LAGen beste atal batean adierazi denarekin bat etorrita, prozesu horiek laburtu eta sinplifikatu egin nahi dira.

3.3.- Eskariak.

Azaldutako ohar horiek oinarritzat hartuta, adierazitako aurreikuspenen multzoa kentzeko eskaria egin nahi da, eta, ildo horretatik, baita gainerakoak ere; izan ere, hirigintza-plangintzari ez dagozkion zereginak eta erantzukizunak esleitzea adierazten dute, inolako arrazoirik gabe..

4.- INGURUNE FISIKOAREKIN EDOTA LURZORU URBANIZAEZINAREKIN LOTUTAKO GIDALERROAK.

4.1.- Lurralde Antolamendurako Gidalerroen hasierako onespen-dokumentuaren gidalerroak.

Une honetan gure arretaren xede diren gidalerroak Aplikazio Arauen I. eranskinean biltzen direnak dira bereziki (baina ez eksklusiboki).

4.2.- Zenbait ohar.

A.- Baserria, eta lurzoru urbanizaezinean dauden eraikinak.

LAGen hasierako onarpenerako dokumentuan, baserri terminoa hainbat testuingurutan erabiltzen da, eta hainbat zentzutan. Adibidez:

- * I. eranskineko “1.b.3.d” idatz-zatian, zentzu orokorrean erabiltzen da ustez.
- * I. eranskineko “1.b.3.e” idatz-zatian, zentzu espezifikoagoa hartzen du, eta landa-guneei egiten zaie erreferentzia.

Modu osagarrian, baserri terminoaren zentzua eta esanahia zuzen zehazteko, kontuan hartu behar dira 105/2008 Dekretuak 9. artikuluan biltzen dituen aurreikuspenak ere. Hala, dekretu horretan jasotzen denaren arabera, eraikin bat baserritzat hartzeko nahitaezko baldintza zera da: lehen okupazioko lizentzia izatea, edo eraikinak 1950eko urtarilaren 1aren aurretik bizitegi-okupazioa izan duela era sinetsgarrian jasoko duen dokumentu bat izatea.

Halako aurreikuspen bat egitea justifikatuta dago landa-guneeen esparruan, baina ez gainerako lurzoru urbanizaezinean.

Horregatik, ezinbestekoa da kontu horrekin zehatz eta zorrotz jokatzeko (hizkuntzari dagokionez ere bai), eta gai hori dagokion testuinguruan kokatzea, landa-inguruneke eraikuntza-ondarea zuzen erabili eta baliatzeko (1950. urtetik aurrera eraikitakoa barne).

B.- Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.

Indarrean den Nekazaritza eta Basozaintzako LPSn jasotzen diren aurreikuspen batzuk egokitzea dakarte planteatutako gidalerroek. Hauek dira horietako batzuk:

- * Indarreko LPSn, berotegiak nekazaritzako erabileren zati dira. Horren aurrean, berotegiak eta nekazaritzako erabilerak bi erabilera mota desberdin dira LAGen hasierako onarpenerako dokumentuan.
- * LAGen hasierako onarpenerako dokumentuan, abeltzaintza intentsibora zuzentzen diren eraikinak nekazaritza-industriak dira. Ez dira hala LPSn.

Horiek justifikatzearekin batera eta 3. atalean adierazi denarekin oso lotuta dagoela kontuan hartuta, horrelako doikuntzak aplikazio-irizpide zuzen eta zorrotzak zehaztuta osatu beharko lirateke, bai LAG horiek indarrean sartzean, bai LPS horiek haietara egokitu ondoren.

4.3.- Eskariak.

Azaldutako ohar horietan oinarrituta, honako eskaera hauek egin dira:

- A.- Baserri terminoa zuzen eta behar bezala erabiltzea, besteak beste, honako alderdi hauek ere kontuan hartuta:
- a) 1950eko urtarilaren 1a baino lehen eraiki eta erabili izanarekin lotzen den baldintzaren eskakizuna landa-guneekin lotzea, eta ez horietatik kanpo daudenean.
 - b) Gainerako lurzoru urbanizaezinean dauden eraikinen tratamendu global eta bateratua, 1950. urtea baino lehen edo ondoren eraiki diren alde batera utzita, lurzoru urbanizaezinean dagoen ondare eraikiaren erabilera eta aprobetxamendu zuzen eta egokia bermatzeko baldintzetan.
- B.- LAGetako aurreikuspenen eta indarreko Nekazaritza eta Basozaintzako LPSkoen aplikaziorako irizpideak zehaztea, haiek bigarrena berregokitzen dutenean.

5.- HIZKUNTZA.

5.1.- Lurralde Antolamendurako Gidalerroen hasierako onespén-dokumentuaren gidalerroak.

Une honetan, arreta eskatzen duten gidalerroak hauek dira, besteak beste: Aplikazio Arauetako 2. artikuluan, 25.ean, 29.ean eta abarretan sartzen direnak.

5.2.- Zenbait ohar.

“2.a” artikuluan, adierazten da II. kapituluko gidalerroak *hainbat irizpide onargarriren arteko inposizio-, bazterketa- edo txandakatze-irizpideak* direla. Eta III. kapitulukoak *gomendioak* dira.

Aurreikuspen horiek nekez dira edo izan daitezke bateragarriak beste batzuekin, besteak beste, hauekin:

- * II. kapituluan jasotzen diren proposamenak plangintza urbanistikoak egokitzei aukerarekin.

- * Proposamenei dagozkien termino zehatzen eta aginduzkoen erabilerarekin (lurralde-plangintzak eta hirigintza-plangintzak *beharko du, garatuko du...*), gomendio izaera badute ere; beraz, ez zaizkio izaera horri egokitzen (25. artikulua, 29.a).

5.3.- Eskariak.

Adierazitako ohar horiek oinarri hartuta, komeni da hizkuntza “zaintzea”, eta, beraz, dokumentuaren edukiak zuzentzea, gidalerroen izaeraren eta jatorriaren arabera egokitzeko.

Bilbon, 2018ko apirilaren 27an